

KOSTUEN EGITURA

ZitzTool zerbitzuak herritarren eskura ipiniko dituen baliabideak, kalitatezkoak eta hauen beharrei egokitutakoak izango dira. Hau kontuan izanik, jarraian, zerbitzuak izango dituen kostuak azalduko dira:

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, bulegoa propioa izango duela zerbitzuak; eta hau, sozioetako baten lokala izango da. Beraz, ez du gasturik suposatuko honen alokairuak. Bulego horretan, telefonoa, bi ordenagailu, wifi-a eta argi-indarra edukitzea beharrezkoak dira zerbitzua eguneratuta egon eta bezeroari informazio guztia eskura ipintzeko.

Ondorioz, lehenengo hilabetean inbertsio handi bat egin beharko dela kalkulatu da. Alde batetik, bi ordenagailu erosi beharko dira, eta biak batera, 700€ balioko dute. Kutxatilak berriz, 4474,80€ guztira. Honi atxikiturik, kutxatilak beharrezkoak edukiko dituzten sarrailak eta hauek irekitzeko txartelak, 3600€ko gastua ekarriko digu. Kutxatilen barruan dauden eta bezeroak erabiliko dituzten xurgagailuek, 3960€ko inbertsioa suposatuko du. Hauek, behin bakarrik ordaindu beharko dira, beraz, lehenengo hilabetean bakarrik egongo da gastu hau.

Bestalde, zabor-tasa, Interneta eta telefonoaren tarifa, argia eta xurgagailuak edukiko dituzten plastikozko poltsak, kostu finko bezala izendatuko dira; zerbitzua martxan jarri eta hilero ordaindu beharko direlako. Plastikozko poltsak, 25,99€ suposatuko digute hilabete batean; argiak berriz 50€; amaitzeko Internetak eta telefonoaren tarifak berriz, 18,12€.

Bankuari, 10.000€ko mailegu bat eskatu beharko zaio, zerbitzua martxan jartzeko eta bankuarekin adostutako epean, lortutako irabazietatik, aldez aurretik adostutako diru kopurua bueltatuko zaio. Diru kopuru honi, interesak gehitu behar zaizkio eta hauek ere, finkoak izango dira. Horretaz gain, bazkide bakoitzak 3.000€ko aportazioa egingo du eta maileguarekin batera 13.000€ edukiko dira proiektuarekin hasteko.

Amaitzeko, zerbitzu hau martxan ipini dugun pertsonok, bankuari mailegu guztia itzuli arte, hau da lehenengo urtean, ez dugu soldatarik izango. Lehenengo urtea igaro ostean, irabaziak zeintzuk diren ikusiz, kide bakoitzak zenbateko soldata jasoko duen adostuko dugu, soldata hau 4 kideetan kopuru berdina izango da.

LEHENENGO HILABETEA

Ordenagailua	350€	x2	700€
Kutxatilak	248'60€ (1 zutabe/4 kutxatila)	x18	4474,80€
Poltsak	1 pack = 600 poltsa (0,04 poltza bakoitza)	x1	25,99€
Xurgagailua	55€	x72	3960€
Zerradurak+Txartelak	50€	x72	3600€
Zabor-tasa	24,97€ (hiruhilabetea)	÷3	8,33
Interneta+Telefonia	18,12€	x1	18,12€
Argia	50€	x1	50€
Publizitatea	Irratian + aldizkarian	x	25,12€
Soldatak	0€	x4	0€
GUZTIRA			12862,36€

HURRENGO HILABETEA

Poltsak	1 pack = 600 poltsa (0,04 poltza bakoitza)	x648	25,99€
Zabor-tasa	24,97€ (hiruhilabetea)	÷3	8,33
Interneta+Telefonia	18,12€	x1	18,12€
Argia	50€	x1	50€
Soldatak	0€	x4	0€
GUZTIRA			102,44€